

# Hamar martiri

txillardeg

IRA. Ko gudariak  
hildakoen omenez



matzaten, hamarterainoko bost hilen oroitzen. Kontua gora joan da; baina Londres-ko gobernuak ez du amore eman.

Zalantzan jar ahal dezake inork, ordea, Ulster-ko sei konderri horiek Irlanda direnik; eta, Irlanda-ko parte direnez, Londres-ko gobernuak galdua daukanik partida? Baina, halako batez, oso egokiro aipatu zuen Laspiur adiskideak «odol-saria»; eta Ulster-en prezioa, ageri denez, 10 gose-grebalarien sakrifizioa baino gehiago da. Besterik gabe.

Fitz Gerald-ek, Dublin-go gobernu-buruak, garbiki adierazi du, gero eta laguntzaile gehiago lortzen ari dela IRA Maze-ko gose-grebalaren bitartez. Halaz ere, nekez pentsa dezake inork Dublin-go gobernu **ezertan** gogorra denik. Eta askatasun-borrokan ere ez. Baina Fitz Gerald-ek irekita dauzka begiak.

Bellagy-n gertatutakoak, esate baterako, ongi erakusten du hori. McElweeren elizkizunetan Aita M. Flanagan-ek

manifestapen ugari.  
herria  
bere presoekin.

Oraintxe eman du berria Los Angeles-ko Irratiak: Maze-ko hamargarren gose-grebalaria hil dela. Izena ez dut ongi ulertu; baina Paddy Quinn izan daiteke, 29 urte, Ekainaren 15-an jateari utzita.

Eta, jakina: «aquí no pasa nada». Berria, beste mila berri eta aluntzioren artean eman dute, ia-ia erreparatu ezinean. Baina Irlandako abertzaleak izkiriari zuzen ari diren Kondaira-orrialdea odolez eta neurtu ezinezko oinazez oratua, berriz ere agertuko da betirako inperialismoaren kontra gizonak izkiriatu dituzten ekintza miresgarrien artean. Gure arteko batek orain dela gutxi «cobarde» deitzen saiatu zen borrokalari gaitz horiek, gizonarengan sinesteko aukera ematen digute, hain zuzen.

Hildakoen ilara aurrera doa. Begien aurrean bide daukat oraindik McElweeren katabua, bere zortzi arrehek lurperatzen eramana. Zenbat egun? Hamar bat? Eta heriotza hartaz ahaztu orduko, horra hor hamargarren hilotza Maze-ko ifernuan.

Oraindik oroitzen naiz. New York-etik pasa nintzenean, manifestazio txiki bat egokitu zen. Gaizki oroitzen ez banai, argori itsaskor hartan, eta bostgarren abenidako raskazi gaitzen artean, **bost** katabu, bost hilkutxa, zera-





gose-greba gelditu beharra aipatu zue-  
nean, zalaparta sortu zen elizan; eta  
emakume mordo bat (Bernardette Dev-  
lin barne) kalera irten zen. Hildakoen  
artean, bestalde, INLA-ko bi daude;  
IRA-tik berezitako adar ezkertiarra-  
goa. Gose-greba halako batasun-giroa  
sortu du.

Londres-en, hala ere, itxitasun han-  
dia dago.



Oso liberala izaten den «The Obser-  
ver» astekariak, esate baterako, Mss.  
Thatcher-en egoera txarra Abuztuaren  
9an aztertzen zuelarik, **best** puntu aipa-  
tzen zituen krisialdia azaltzeko; baina  
Irlanda-ko arazoa aipatu ere ez zuen  
egiten.

Berdintsu «The Times» zentzuduna,  
Joan den igandeko editoriale «harrigar-  
rian» (Abuztuaren 16-koan, beraz),  
Ulster-i askatasuna ematea proposa-  
tzen zuen; baina bi pusken bateratzea  
gaitzetsiz. Ulster-ko sei konderrietan  
(beste hiru, Errepublikan daude jada-  
nik) «protestanteak», hau da askatasu-  
naren etsaiak, gehienak izanik, propo-  
samendu honek bi ondorio izango lituz-  
ke: 1) Irlanda-ren erdibiketa azkartzea;  
2) Ulster-en anti-abertzaleak eta kolo-  
noak, Rhodesian bezala edo, nagusi se-  
gitzea. IRA-k nekez onartuko du hau.

Zer diote, ordea, gure arteko bakeza-  
leek?

Batzu, jakina, zozoenak, Irlanda-ko  
abertzaleak «cobarde» deitzera mentu-  
ratu dira. Baina, gainerakoak, zertan  
dira? Maze-ko borrokalariak, ongi jaki-  
na denez, Irlandaren askatasuna eta ba-  
tasunaren alde ari dira; eta inolako bor-  
txakeriarik gabe ari. Greba horretan,  
beren burua baizik ez dute kolpatzen.  
Sakrifizio harrigarrian, beren bizia bera  
eskaintzen dute, piskanaka-piskanaka,  
itzulerarik gabeko gau beltzean sartzen  
direlarik. California urrun honetatik,  
ezer ez dakit; baina gure arteko ultra-  
bakezaleak kalera atera direla ez dut  
dudan jartzen. Maze-ko gartzelakoa  
baita, abertzaletasun guztien historian,  
bortxakeriarik gabe ikusi den ekintza-  
rik ederrenetako bat.

Bestela, oraindik ere Meze-ko marti-  
rien alde txintik atera ez badute, Irlan-  
da-ko borroka bideen alde oraindik uso  
zuriekin kalera aldraka irten ez badira,  
«cobarde» guk deituko ditugu, eta gure  
herriaren parterik onenak ere deituko  
ditu.

Zeren-eta McElwee, bederatzigarren  
hila, bizi guztirako kondenatua baitzen,  
ekintza armatuengatik; eta bere emazte-  
gaia, Maze-ko gartzelakidea, bizi guzti-  
rako kondenatua baita, arrazoi berbe-  
rarengatik.

Badirudi, hitz batez, borroka mota  
guztiak aurrera eramaten dituztenak,  
berberak direla.

Besteek, «karrera onak» egiten dituz-  
te. Legea omen da.

**TXILLARDEGI**

1981-VIII-22

*presoen senideek  
garrantzi handia  
izan dute  
borrokan*

